



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

PRENTSARAKO OHARRA

18/02/08

Bizkaiko Batzar Nagusiek beherapenak eskintzen dituen azoken kontrol fiskalerako ekimena onetsi dabe

Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak aho batez onetsi dau gaur goizean Talde Popularrak bultzatutako Arauz Besteko Proposamena, asteburuetan egiten diran eta beherapenak eskintzen dituen azoketako kontrolaren gainekoa.

Ekimenak eskaria egiten deutso Bizkaiko Foru Aldundiari, iruzur fiskalaren kontra aurrera daroan burukaren barruan egin beharreko kontrolak egin daizan, Lurraldean egiten diran azokatan, erakusketatan, *outlet-etan* edo antzekoetan legedia betetan dala bermatzeko. Javier Ruiz proposamena aurkeztu dauen taldeko bozeroaleak, proposamen hori iruzurrari aurre egin beharraren, merkatari txikiei egiten jaken kaltearen eta asteburuetan be ikuskapen fiskalak egokitutako beharraren barruan sartu dau proposamena.

Talde guztiak iruzur fiskalari aurre egiten lagunduko dauen neurriaren alde agertu dira, baina euren desadostasuna erakutsi dabe proposamena aurkeztu dauen taldeak azaldu dituan justifikazio batzuakaz.

OGASUN ETA FINANTZETAKO FORU DIPUTATUAREN AGERRALDIA

Eguneko gai zerrendea Jose María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuaren agerraldiagaz osatu da, EH Bilduk eta Talde Mistoak egin dituen eskari biren aurrean erantzuteko. Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroaleak, nazinoarteko enpresen artean iruzur fiskala aurkitu izanaren eta Bizkaiko Ogasunak ia 126 milioi euro berreskuratu izanaren inguruan galdetu dau. Aldundiko arduradunak, 2017an Nazinoarteko Fiskaltasuneko Unidadea (FNU-UFI) sortu izanaren barruan sartu dau jarduketea. Iruarrizagak azaldu dauenez, “espezializazino maila alta” daukan unidade hori martxan jarri izanak hiru alderdiri erantzun deute: iruzurraren jazarpenean espezializetako estrategiari; nazinoartean iruzurra prebenitzeari; eta ekonomia globalizauk sortu dauen testuinguru barriari. Batzordeko taldeek modu positiboan balorau dabe FNU-UFIren sorkuntza, eta laneko ildo horrekin jarraitu beharra azpimarratu dabe.

Ogasuneko Diputatuak, 2015eko eitaldiari jagokon Bizkaiko Lurralde Historikoko Kontu Orokorraren Fiskalizazino Txostenaz azaltzeko be hartu dau parte. Gai horren beraren inguruan Kontuen Euskal Epaitegiko Presidenteordeak orain denpora gitxi egin eban agerraldian gertau zan moduan, eztabaidea Epaitegi fiskalizatzailak aitatu ebazan salbuespenen inguruan zentrau da. EH Bilduk, hautemondako zazpi ez beteteak eta horreek zuzendu beharra azpimarratu dau, “Bizkaiko Foru Aldundia eredugarria izan behar dalako gai horretan”. Talde Popularra eta Podemos Bizkaia taldeak bat etorri dira Batzar Nagusietako Osokoan behin betiko balorazinao egingo dabela esatean, eta Talde Mista, Euskal Sozialistak eta Euzko Abertzaleak taldeak ados agertu dira Epaitegiaren Txostenagaz. Ogasuneko Diputatuak, bere aldetik, “salbuespenak, Epaitegiak bideratzen deuskuzan iradokizunak eta eretxiak dirala adierazo dau barriro, eta ez legez kanpoko ezer”.

NOTA DE PRENSA

08/02/18

Las Juntas Generales de Bizkaia aprueban una iniciativa para el control fiscal de las ferias de descuento

La Comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado esta mañana por unanimidad una Proposición No de Norma, impulsada por el Grupo Popular, sobre el control en las ferias de venta de descuento que se celebran los fines de semana.

La iniciativa insta a la Diputación Foral de Bizkaia a que, dentro de su ámbito en la lucha contra el fraude fiscal, realice los controles necesarios para garantizar el cumplimiento de la legalidad en las ferias, expos, *outlets* o similares, que se llevan a cabo en el Territorio. El portavoz del grupo proponente, Javier Ruiz, ha enmarcado esta proposición en la necesidad de combatir el fraude, en el prejuicio que representa para el pequeño comercio y en la necesidad de habilitar inspecciones fiscales también durante los fines de semana.

Todos los grupos han mostrado su apoyo a una medida que contribuye a combatir el fraude fiscal, si bien han mostrado sus discrepancias con algunas de las justificaciones esgrimidas por parte del grupo proponente.

COMPARCENCIA DEL DIPUTADO FORAL DE HACIENDA Y FINANZAS

El orden del día se ha completado con una comparecencia del Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, Jose María Iruarrizaga, para responder a dos solicitudes por parte de los grupos EH Bildu y Mixto. El portavoz de este último, Arturo Aldecoa, solicitaba información acerca de la localización de fraude fiscal por parte de empresas multinacionales y la recuperación de casi 126 millones de euros por la Hacienda de Bizkaia. El responsable foral ha enmarcado esta actuación en la creación, en 2017, de la Unidad de Fiscalidad Internacional (UFI). Iruarrizaga ha explicado que la puesta en marcha de esta unidad “altamente especializada” ha respondido a tres factores como son una estrategia de especialización en la persecución del fraude, la prevención del mismo en su vertiente internacional y el nuevo contexto de la economía globalizada. Los grupos junteros han valorado positivamente la creación de la UFI, si bien han insistido en la necesidad de continuar en esta línea de trabajo.

El Diputado de Hacienda ha comparecido igualmente para explicar el Informe de Fiscalización de la Cuenta General del Territorio Histórico de Bizkaia correspondiente al ejercicio 2015. Al igual que sucediera en la reciente comparecencia sobre este mismo asunto, por parte del Vicepresidente del Tribunal Vasco de Cuentas, el debate se ha centrado en torno las salvedades expuestas por Tribunal fiscalizador y las correspondientes alegaciones por parte del ente foral. EH Bildu ha puesto el acento en los siete incumplimientos observados y en la necesidad de corregirlos, ya que “la Diputación Foral de Bizkaia debe ser ejemplarizante a este respecto”. Tanto Grupo Popular como Podemos Bizkaia han coincidido al señalar que harán una valoración definitiva en el Pleno de las Juntas Generales, mientras que Grupo Mixto, Socialistas Vascos y Nacionalistas Vascos se han mostrado satisfechos con el Informe del Tribunal. Por su parte, el Diputado de Hacienda ha insistido en que “las salvedades son sugerencias y opiniones que nos traslada el Tribunal, pero no ilegalidades”.